

## Larrosak eta urrezko botoak azken txanpan

Hauteskunde kanpainak hainbat ekitaldi ekarri ditu herrira berriz ere

Kanpainako azken egunera arte boto eske aritzeko asmoa dute alderdi politikoei, eta hala egiten ari dira Lasarte-Orian ere. Asteazkenean merkata bisitatu zuten PSE-EEko hainbat kidek, Iñaki Arriola Gipuzkoako hautagai zerendako lehena buru zutela. Larrosak banatzen aritu zen Arriola, besteak beste Ana Urchueguia alkatea, Jesus Zaballos zinegotzia eta Rafaela Romero Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentearekin.

Lasarteoriatarrei "aldaketaren mezua" zabaltzera etorri zela esan zuen Arriolak. Langabezia eta ekonomia aipatu zituen EAeko datoen legegintzadirako erronka gisa, eta udalei "solidaritatea" eskaini zien, krisia dela eta haien diru-sarrerak murriztu direlako.

### Urrezko botuak

Krisi garaian urrea estimatua da, ez du baliorik galtzen. Ezker abertzalea, batetik D3M ko hautagaia epaileek hau-

teskundetatik kanpo utzi dituela eta hauteskunde antidemokratiko batzuen atarian gaudela salatzen dihardu baina bestetik botuek urrezko balioa dutela aldarrikatzen ari da Euskal Herriak krisi bikoitza bizi duen garaian, batetik "hainbat familia jasaten ari den ekonomia krisia" eta bestetik politikoa, "agortua den Gernikako estatutuan oinarria duena".

Beraz krisi garaian arduraz zein baikortasunez jokatu eta urrean inbertitzeko proposatzen dute ezker abertzalekoek, zera aldarrikatuz, D3M dela urrezko bozka hauteskunde hauetan: "Milaka dira urrezko bozka emateko arrazoiak. Gure asmoa, krisi garai hauetan argi izpi bat jartzea da. Urrean inbertitzea, Ezker Abertzalean inbertitzea, Euskal Herrian inbertitzea da".

Asteartean Okendon elkar-tu ziren Ezker Abertzaleko herriko kideak, bizi duten egoera salatu eta urrezko botuak eskatzeko. •




Besteak beste Ana Urchueguia eta Iñaki Arriola aritu ziren larrosak banatzen asteazkeneko merkatuan.



Ezker abertzalekoek ekonomia eta politika krisia gainditzeko D3Mren urrezko botoetan inbertitzeko eskatu dute.

### ALBISTEAK | 3

**Gaurtik aurrera ospakizunetan murgilduko dira Lasarte-Orian bizi diren andaluziarrak**



buruntzaldea.org: itzulpen, laguntza,... oro har euskararen inguruko zerbitzu guztiak eskura /4-5



Ainhoa Taberna saskibaloitzaile taldeak ligako fase berria hasiko du asteburu honetan /6

# ibarretxe

## ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO

bozkatu  
SEAI  
PNV  
Jakin eta eman

**Zorion-agurrak**



**Axier**

Zorionak presi! Indarrrak ondo administratu, 24ak ezin dira ez edozein moduan ospatu.



**Ane**

Zorionak neskatxa! 11 urte sasoiarekin hartu eta gozatu! Ondo pasa



**Leire**

Bigarrenean bai, orain bai.... Zorionak!!!! Azterketak bukatu dituzulako, je, je!



**Uxue**

Zorionak zure egunean sorgintxo eta gogortu...Jo ta ke ehun bete arte! Familia.



**Yanelle eta Maider**

Zorionak bioi eta muxu handi bat denon partetik!



**Jenni eta Elaia**

Zorionak bikote! Txokolatezko muxu handi bat familiaren partetik.



**Eloy**

Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



**Yolanda**

Zorionak neska. Muxu asko familiaren partetik.



**Jose Antonio eta Iker**

Zorionak familiaren partetik. Muxuak



**Beñat**

Zorionak Beñato! Ondo pasa larunbatean! Lagunen partetik.

**Guardiak**

**Ostrala, 27**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Larunbata, 28**

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Igandea, 1**

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Astelehena, 2**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Asteartea, 3**

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Asteazkena, 4**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Osteguna, 5**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdiak**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DIYA ..... 943 464622  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ..... 943 362442  
Ertzaintza ..... 943 288888  
SOS Deiak ..... 112

**Udala**

Erregistroa ..... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia ..... 943376182  
Kulturretzea ..... 943376181  
Bakezko epaitegia . 943371629  
Zerbitzu Sozialak . 943376179  
Zentro Zibikoa . 943363958  
KIUB ..... 943361605  
Udal euskaltegia . 943361621  
Obrak eta zerbitzuak ..... 943 376180

**Jaiotzak**

Luna Santamaria De Jesús, otsailaren 18an  
Elaia Beltrán Lozano, otsailaren 16an  
Udane Arzadun Alcorta, otsailaren 15ean

**Heriotzak**

Juan Jose Ariztegui Mindegia, otsailaren 22an 71 urte zituela

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Landak/Vieux Boucau-n (Le Boulanger urbanizazioan) 4 pertsonentzako estudio bat alokatzen da Aste Santuan eta Pazko astean.Tel.: 943 370534, gaez.

• Zumaburuko garaje berrietan, plaza t'erdiko (18 m2) garaje itxia eskaintzen da -1 pisuan alokairuan.Tel.: 636 46 80 56.

• Logela bat alokatzen da pisu partekatutako batean.Alokairua 300 eurotakoa da. Harremanetarako zenbakia, 627 556 932.

• Lasarte-Oriako zentroan pisu bat alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Lasarte-Oriako zentroan garajea alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Bi logelatako pisua alokatzen dut, Iñigo de Loiola kalean. 650 euro hilean. 627 995 760.

**Salerosketak**

• Mutilentzako jaunartzeko jantzi berriak eta oso prezio onean saltzen ditut, 60 eurotik aurrera. 688.667982

**Lan-eskaintzak**

• Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. 688 687 285

**Lan-eskariak**

• Pertsona bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, bai haur baita aitona-amonak zaintzeko, e.a.Tel.: 943 361985 edo 659 590217

• Neska arduratsua eta esperientziarekin eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo/eta haurrak zein helduak zaintzeko arratsaldez.Tel.: 620 036 888.

**Oharretarako:**

Tel.: 943 366858 • Geltoki kalea 4 • txintxarri@ttakun.com  
www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

**Gazte Informazioarako Bulegoa**  
Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181  
www.gipuzkoangazte.info

**Kursaal elkargunearen sukaldaritza, kafetegia eta katerin zerbitzuak kudeatuko dituen antolatzaile bat kontratatze-ko lehiaketa**

Kursaal Jauregiko sukaldaritza, kafetegia eta Kursaal Jauregian egingo diren ekitaldietarako catering zerbitzuak kudeatuko dituen antolatzaile baten kontratazioa. Iraupena: 5 urte gehi 5 urte luzapena. Hasiera: 2010eko urtarrilaren 1ean. Diru-kontuak: urteko gutxienez 150.000 euro; kanon % aldagaria baldintza ekonomiko-administratibo eta teknikoaren arabera; kontratuen balio estimatua: 4.600.000 euro. Aurkezteko azken eguna martxoaren 26a. Informazio gehiago Kursaal Elkar-

gunea, S.A., Zurriola Hiribidea 1, Donostia; tel.: 943 003000; posta elektronikoa: kursaal@kursaal.org; web orria: www.kursaal.org.

**Administrazio orokorreko erdi mailako teknikari bat Oñatiko udalerako**

Oñatiko Udalean Administrazio Bereziko teknikari-lanpostu bat (web master-artxibozain dokumentalista) betetzeko oposaketa-lehiaketa. Bete beharreko baldintzak: Artxibistikako diplomatura edo pareko titulu baten jabe izatea eta 4. hizkuntza-eskakizuna. Izena emateko azken eguna martxoaren 13a. Informazio gehiago Oñatiko udalean, Foruen enparantza 1; tel.: 943 78 04 11.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Andaluzia Eguneko ospakizunak gaur hasiko dira

TXINTXARRI

Otsailaren 28a, Andaluzia erkidegoarentzat eta, batez ere, bere herritik kanpo bizi diren milaka andaluzentzat egun handia da, Andaluzia Eguna.

Horregatik, gure herriko Semblante Andaluz elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu gaur eta bihar egun seinalatua ospatzeko.

Jose Luna eta Arena Fina taldeak gaur Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan 20:00etan ekainiko duten emanaldirekin emango zaie hasiera ospakizunei.

## Luna eta Arena Fina

Flamenkoaren egungo freskotasuna eta indarra talde honetako lanean antzematen da. Indar handiko emanaldia eskaintzen dute, non musika eta elementu eszeniko garaiak batzen dituen.

Jose Luna eta Arena Finaren zuzeneko flamenkoaren unibertsaltasun eta egungo artistek bere lanetan txertatzen dituzten adierazpen modu desberdinen isla da.

## Andaluzia eguneko ekitaldiak

Semblante Andaluzek antolatutako ospakizunetako ekitaldi nagusiak Andaluzia



Zambra dantza taldeak emanaldi paregabea eskaini zuen iazko Andaluzia egunean.

egunean bertan, hau da, larunbatean burutuko dira.

Eguerdian, Arantzazuko Amabirjinaren parrokian Semblante Rociero abesbatzak girotutako meza ospatuko dute.

Ospakizunak elkartearen egoitzan izango du jarraipena. Ohorezko ardoan eta, ondorengo, bazkari herrikoian Andaluzia erkidegoko produktuak eta sukaldaritza

dastatzeko aukera izango dute elkarteak kideek.

Arratsaldean, berriz, elkarrekin kultureko txikiak osatzen duten Duende Flamenco dantza taldearen txanda izango da. Talde honek 18:00etan eskainiko du emanaldia.

Eta egun garrantzitsua honi amaiera emateko, Semblante Rociero abesbatzaren laguntzaz, Andaluziako Ereserki abestuko dute. •

# Mitxelingo Areto Futbol Zelaiaren itxitura egiteko obren lizitazioa argitaratu da

Udal kirol guneko, hau da, Michelingo areto-futboleko pistaren alboetako itxiturak egiteko obren lizitazioa argitaratu da aste honetan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Obren aurrekontua 223.042,19 eurotako da BEZa barne. Era berean, obrak gauzatzeko epe orokorra hilabete eta erdikoa izango da, zuinketa egiaztatzeko akta egiten den egunaren hurrengotik kontatzen hasita. Esleipeneko tramitazioa arrunta izango da, prozedura irekia eta eskaintza ekonomikoki onuragarriaren arabera eta prezio apalenari adjudikatzeko irizpide bakarraren arabera egingo da esleipena.

Obrak eta Hirigintza Departamentuan, Kale Nagusia 22 3. solairuan, eskuratu ahal da beharrezko dokumentuei buruzko informazioa. Hala ere, hau guztia Klausula Administratibo Partikularren Agirian agertzen da.

Proposamenak Lasarte-Oriako Udaletxean aurkeztuko dira, Kale Nagusia 22 helbidean, jendearentzako orduetan, goizeko 9:00etatik 13:00tara, eta hogeita sei egun naturaleko epean, lizitazioaren iragarpena egunaren hurrengotik kontatzen hasita. Eskaintza zigitatuak postaz igorri ahal dira, APKLEOKO 80. artikulua ezarritakoaren arabera. •



# Bizitzari buruzko hausnarketak gaur Jalgin

Bizitzeko leku perfekturik ba ote dagoen galdetzen diote elkarri Gilkitxaro antzerki taldeko pertsonaiek, Luluk eta Elmerrek.

Mendebaldeko pertsonentzat etxebizitza baten jabe izatea ezinbesteko bihurtu dela uste dute eta egoera aztertzeko tokian toki eta lekuz leku esperimentatzen ari dira.

Baina etxebizitzak alaitasuna, jakinduria, maitasuna, dibertimendua eta adimena ordezkatu dituela uste dute eta egoera honi aurre egiteko, Lulu eta Elmerrek beren sistema enpirikoa sortu dute: bizitza.



Lulu eta Elmer *Honolulu leku bat* antzezlaneko pertsonaiek gaur Jalgin.

## Honolulu leku bat

Kerra Gabikagogeaskoaren zuzendaritzapean, Ane Zabala eta Galder Perez aktoreek, obra "arina" prestatu dute, *Honolulu leku bat*.

Pertsonaiek askatasuna eta norbanakoaren independentziaz mintzo dira, poesiatik

eta absurdutik gertu dagoen antzezlan honetan.

Elkarrizketa, komikotasuna, mugimendu koreografikoak eta musika, hau guztia, iluna den gaiari argitasun

pixka bat emateko.

Honela, Jalgi kafe antzokira gaur 22:30ean hurbiltzen diren ikusleekin partekatuko dituzte Lulu eta Elmerrek bere hausnarketak. •

# Ustekabeko suteak kamioi bat eta mikrobus bat erre zituen

Correoseko kamioi bat eta mikrobus bat erre eta beste kamioi bat kaltetua izan zen astearte gauean Zirkuitu ibilbideko poligonoan sortu zen sutean.

Asteartean, 23:30etan etxebizitzetako bizilagunek poligonoko aparkaleku batekin ke-laino handia ateratzen

zela ikusi eta SOS Deiakera deitu zuten.

Donostiako suhiltzaileak eta Ertzaina bertaratu ziren eta sua itzali ostean, sutea nahita sortua izan zen aztertu zuten. Eta lehenengo azterketako datuen arabera, ustekabeko sutea izan zela jakin arazi zuten atzo. •





Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 28**

**10:00etan**, Ostadar-Hernani (Emakumezkoen KDT F-11, txapeladunen fasea) Michelinen.  
**10:00etan**, Zumaia-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Aita Mari, Zumaian.  
**11:30etan**, Ostadar-Urnieta (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.  
**12:30etan**, Lengokoak-Ostadar (Infantil Txiki Kopa) Cesar Benito, Donostian.  
**15:30etan**, Texas Lasartearra-Luberri (I. Jubenila, kopa) Michelinen.  
**17:15etan**, Ostadar-Intxurre (II. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.

**Igandea 1**

**10:30etan**, Ostadar-Zestoa (I. Jubenila, igoera f. Michelinen).  
**11:30etan**, Arrasate-Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Mojategi, Arrasaten.

**FUTBOLA 8**

**Larunbata 28**

**11:30etan**, Zestoa-Lasarte BHI (eskolarteko infantilak) Iraeta,

**FUTBOLA 7**

**Larunbata 28**

**16:00etan**, Aralar Taberna-Niasa-Corpa (III. Maila) Felix Garin 2, Donostian.

**ARETO-FUTBOLA**

**Ostirala 27**

**21:00etan**, Zaldibi-ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Resti frontoia, Zaldibin.

**Larunbata 28**

**17:00etan**, Aldaz H.K.-La Bello-ta (Euskal Liga) Kiroldegian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

*Michelin edo frontoian*

**9:10etan**, Okela-Oria Krist.

**10:00etan**, Viña del Mar-Buenetxea

**10:50etan**, Lurra XXI-Morrison

**11:40etan**, Tragoxka-Siglo XX

**12:30etan**, ISU Leihoak-Ilargi

**13:20etan**, Obelix-Biyona

**14:10etan**, IOB H.K.-Jordi

**15:00etan**, Katanga-Izarra

**Igandea 1**

**HERRIKO TXAPELKETA**

*Michelin edo moduloan*

**10:00etan**, Ainhoa-Izkiña

**10:50etan**, Oria txiki-Danera

**11:40etan**, Mayi-Epal

**SASKIBALOIA**

**Larunbata 28**

**16:00etan**, Ainhoa-Novamark (Gizonezko senior) Kiroldegian.

**PILOTA**

**Larunbata 28**

**11:00etan**, Usurbil-I ntza (Eskuz binaka II. Seniorra) Usurbilen.  
**16:00etan**, Azkoitiko 2-Intza I (eskuz binaka, infantilak) Urnietan.  
**16:00etan**, Intza 3-Hernani I (eskuz binaka, infantilak) Astigaragan.  
**16:00etan**, Alde Zaharra 2-Intza 2 (eskuz binaka, infantilak) Mitxelingo frontoian.

**PALA**

**Larunbata 28**

**XV. PALA TXAPELKETA**

*Michelingo frontoian*

**15:00etan**, Xabier Etxezarreta eta Haritz Urdanpileta - Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga

**Igandea 1**

**XV. PALA TXAPELKETA**

*Michelingo frontoian*

**09:00etan**, Iñaki Lizaso eta Alain Etxebeste - Imanol Bardaji eta A. Zubizarreta

**10:00etan**, Josu Iparragirre eta Aitor Matxain - Fran Ariztimuño eta Edu Jauregi

**10:45etan**, Iñaki Fernandez eta Jose Angel Busto - Ibon Azkonobietta eta Eneko Iradi

**IGERIKETA**

**Larunbata 28**

**16:00etan**, Buruntzaldeako igerilariak Kirol Zehaztasun Ligako 3. Jardunaldia dute Hernanin.

**ATLETISMOA**

**Igandea 1**

**10:10etan**, Santos Uribe Zumeatarrak taldeko lasasteoriatarrak Espainiako Beteranoen txapelketan parte hartuko du, errepidean egiten den, 10 kilometro martxa proban.

**JUDOA**

**Larunbata 28**

**Egun osoa**, LOKEko infantilek Gipuzkoako Txapelketa Taldeka parte hartuko dut Donostian.  
**17:30etan**, Iñaki Elizalde II. Jubenil Ligan parte hartuko du Hondarribiko Ama Guadalupeko klubarekin, Madrilen.

**Igandea 1**

**Egun osoa**, LOKEko Esteban Martinez, Mario Garrido, Amaia Curiel eta Leire Zubizarretak Kadete mailako Espainiako Borroka txapelketan lehiatuko dira San Javierren, Murtzian.  
**15:30etan**, Beñat Elizalde, Iñaki Elizalde, Joseba Izagirre, Julen Sasian eta Asier Sagasti LOKEko judokek 23 urte azpiko Gipuzkoako txapelketa dute Galtzarabardako kiroldegian, Errenterian.



# Ainhoa saskibaloi taldeak fase berriari egingo dio aurre

Probitziako bigarren mailan jokatzen duen herriko Ainhoa taberna saskibaloi taldeak Ligako lehenengo fasea duela bi aste bukatu zuen eta aste-buru honetan ekingo dio bigarrenari.

15 jardunaldiren ostean, bere multzoko 8. tokian bukatu zuen talde lasarteoriatarrak, igoera faserako sailkapenetik urrun. Izan ere,

multzo bakoitzeko lehenengo hirurek lortu baitute igoera jokatzeke txartela.

**Lehiaketa sistema**

Lehenengo liga horretako sailkapena kontuan izanik taldeak bost multzotan banatu dira fase berri honi begira.

Ainhoa taberna A-3 multzoan dago kokatua eta C.D. Internacional, Novamark,

Aldapeta Nucleo, Katu kale eta Baskoplastica ditu bigarren txanda honetako lehiakideak.

Bigarren txanda honetako lehenengo jardunaldia aste-buru honetan jokatuko da. Bestalde, gizonezko seniorren taldea Novamark taldearen aurka lehiatuko da, larunbata arratsaldean, 16:00etan Udal kiroldegian. •



# Ostadarreko XV. Pala txapelketa hastear da

Ostadarrek antolatzen duen XV. pala txapelketako lehenengo partidak aste-buru honetan jokatuko dira.

11 bikotek parte hartuko dute aurtengo lehiaketan. Izena eman dutenen artean dira azkenengo bost urtetan txapela irabazi duen bikotea: Iñigo Arluziaga eta Oskar Lazkano eta beraz eureak dira aurtun ere irabazle izateko hautagai nagusiak.

Antolatzaileen adierazi

digutenez, otsailaren 13an egin zen bileran bikoteak bi multzotan banatu zituzten, 5 bikote batean eta 6 bestean. Bi multzoek ligaxka egingo dute, guztiak guztien aurka eta ostean, talde bakoitzeko lehenengo lauak jarraituko dute lehiari. Hauen arteko norgehiagoken arabera aterako dira finalurrekoetako bikoteak.

Partida guztiak Michelingo frontoian jokatuko dira. •

Kiroletako oharrak

**Arrantza baimena**

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du 2009ko denboraldiko arrantza baimena eskatzeko epea ireki dela.

Baimena bideratu nahi dutenek astearte eta ostegunetan 19:30etatik 20:30etara egin ahalko dute elkarteak.

Baimena eskatzeko azken eguna martxoaren 12a izango da.

**Helduentzako igeriketa ikastaroa**

Martxoaren 9tik apirilaren 29ra, helduentzako igeriketa ikastaroa eskainiko dute udal kiroldegian.

Astean hiru saio izango dira (astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan), 19:10etatik 20:30etara. Izena emateko azken eguna martxoaren 6a da. Ikastaroak 100,40 euro balio ditu eta kiroldegiko baskide direnentzat 55,80 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora hurbildu behar duzue edo 943-376182 telefonora deituaz eska dezakezue.

Egunero

**Erakusketa**

ZILÖ, herriko artistaren "The Artificial Smile Company" margo erakusketa. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan zehar.

Ostirala, 27

**Zinea**

LAS TORTUGAS TAMBIEN VUELAN filma eskainiko dute Emakumeen Zentro zibikoan arratsaldeko 17:00etan.

**Kontzertua**

JOSE LUNA ETA ARENA FINAREN kontzertua Andaluziaren eguneko ospakizunen barruan. Sarrera: 4 euro. Kulturetxean, 19:30ean.

Astelehena, 2

**Zine soziala**

NUEVE VIDAS filma eskaini eta gero Gipuzkoako Itxaropen telefonoa elkarteak hitzaldia emango du bakardeadea gaiatzat hartuta. Danok Kidek antolatutako V. Zinema Soziala zikloaren 1. jardunaldia da. Kulturetxean, 17:30ean.

Osteguna, 5

**Zinea**

CAMINO filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,15 euro. Kulturetxean, 21:30ean.

Ostirala, 6

**Dantzaldia**

CIRCLE OF TRUST, break dantza-konpainia, eta Logela Multimedia produkzio digital taldearen lan berria, Lasarte-Oria dantzan 2009 ekimenaren barruan. Sarrera 6 euro.

**Oharrak**

**Etteraten elkarretaratzea**

Hileko azken ostiralero beza-la, Lasarte-Oriako Etxeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi da herritar guztiei parte hartu dezaten.

**Leherketa berria**

Donostiako Bigarren Ingurubidearen lanak direla eta, hurrengo leherketa otsailaren 28ean izango da N-I eta Tere-sategi baserriaren artean. Leherketa 14:00ak eta 16:00ak artean izango da.

**Calçotada**

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du martxoak 7an Katalunian ohiturazkoa den Calçotada egingo duela. Menua calçotak eta arkume erre. Elkarteko ohar-taulan eman daiteke izena. Mahaikide kopurua mugatua da.



*Gaur antzerkia Jalgin*

HONOLULU LEKU BAT lana eskainiko du Gilkitxaro taldeak. Galder Perezek idatzitako lanak gaur egungo bizitza ulertzeko moduz hitz egiten du. Batzutan komikoki gertatzen dira gauzak, besteetan poetikoki, beti ere ukitu absurdoak ahaztu gabe. Etxebizitzaren jabe izatea gaur egungo mendebaldeko gizakion ezinbesteko nahia bihurtu da. Egoera aztertzeko Elmer eta Lulu, tokian toki eta lekuz leku esperimentatzen ari dira.

GAUR JALGI KAFE-ANTZIKIAN  
22:30EAN, EUSKARAZ

Kulturetxean, 20:00etan

Larunbata, 7

**Kontzertua**

TAXI taldean kontzertu eskainiko du. Sarrera gonbit-txartelarekin egingo da. Kulturetxean, 22:30ean.


Igandea, 8

**Antzerkia**

ENTRE MUJERES antzerki lana eskainiko dute Emakumearen eguneko ospakizunen barruan Lan eta Lan beti Lan Epako antzerki taldeak. Sarrera, 2 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

**EHNA bozkatzeko erabili**

Bai Euskal Herriari taldeak martxoak 1ean burrutuko diren Euskal Legebiltzarreko Hauteskundeetan EHNArekin bozkatzeko eskatzen dira Lasarte-Oriako herritarrei.



**Autobusa AC-DC ikusteko**

Martxoak 31 asteartea, Bartzelonan eskainiko duen kontzertura joateko autobusa antolatuta da. Irteera lekua Donostia edo inguruko herri batean izango litzateke. Autobusa goizeko 9:00etan aterako da Bartzelonarantz eta kontzertu ostean, bueltatuko da. Joan-etorria 50 euro dira eta eserleku kopurua mugatua da. Informazio gehiagorako bus\_acdc@hotmail.com helbidera bidali mezua.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
txintxarri@txintxarri.info  
www.txintxarri.info

**Eskutitzak**

**Errausketa ala atez ateko bilketa: zer diote alderdiek?**

Martxoaren 1eko hauteskundeen aurrean, Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinadorak alderdi politikoei eskatzen die hondakin kudeaketaren inguruan duten jarrera argi azal dezatela.

Euskal Autonomia Erdegoan hondakin gaia inguruan bizi dugun ueña garrantzitsua da, batetik Bizkaian hiri hondakinak errausten dituen Zabalgarbi enpresa pribatua komunikabideetan agertu berria delako. Badirudi zaborrak erretzez gain espekulazio ekonomikoetan sartuta dabilela eta horretan oraingoan diru asko galdu duela. Bestalde azken urteetan pilpilean dago Gipuzkoan erraustegien gaia; hainbat lekutan kokatu nahi izan dituzte, inguruko biztanle eta herri guztiak kontra agertu arren; azkenean Zubietan jartzeko pausua ematen ari dira Erakundeak, inguruko herrien aurkako jarrera kontuan hartu gabe.

**Hondakin euskal legea**

Bestalde, Koordinadora honek bultzatuta, 30000 sinadura bilketa abiatu berri da, Hondakin Euskal Legearen egitearen alde, non jasoko den errausketa ez dela inolaz izango prozesuaren parte eta Udalerriak behartuko dituen zabor poltsaren osagai guztien gaikako bilketa indartua egitera. Sinadura bilketaren epea apirilaren 30ean amaitzen denez, Legea hauteskunde hauetatik iriteten den Legebiltzarrak eztabaidatu beharko du, eta nahitazkoa da hauteskunde aurretik jakitea bozkatuta izan daitekeen alderdi bakoitzak ze asmo duen errausketa eta atez ateko bilketaren inguruan.

Kontuan izan behar da gaur egungo bilketa sistemen bidez inon ez dela %35a baino gehiago birziklatzea lortu eta EAEko kasuan birziklatutako kantidadea oraindik handitu badaiteke ere kasurik onean parterik handiena ez dela birziklatuko. Aldiz Kataluniako eta Mallorkako hainbat herri eta hirietan atez atekoa ipini zutenetik %80a birziklatzen ari dira.

**Ontzien legea**

Gainera, mundu guztiak onartzen du birziklatu aurretik hondakin gutxitu beharra eta honetarako beste berrerabilpena indartu beharra. Legebiltzar honen lana izan beharko luke datorren legealdian Ontzien Legea egitea, non jaso beharko duen nola ontziratuko diren gaiak ahal den alferrikako material gutxien erabiliaz honetarako, ze material erabili hondakin tratamendua errazteko bidean, zer egin erabilitako ontzi horiekin (berrerabili, birziklatu...)

**Hondakinak zero**

Aurreko guztiaren helburua hauxe izan beharko luke: hondakin ez sortzea. Mundu osoko hainbat herrialde eta hirietan - Zelanda Berria, Danimarka, Camberra (Australia), Seattle, San Francisco eta Santa Cruz (AEB), Ottawa eta Ontario (Canada), Buenos Aires eta Rosario (Argentina) helburu horren atzetik lanean ari dira azken urteetan.

Hauteskunde kanpainan ari diren alderdiek diotenez, beste hainbat gaietan punta puntako herria izan nahi baldin badugu (teknologia, zerbitzuak, komunikazioak...), osasunarentzat, ingurugiroarentzat eta ekonomia-arentzat hain garrantzitsua den honetan, zergatik geratu behar dugu besteen atzetik!

**Errausketaren aurkako Gipuzkoako Plataformen kordinakundea**

# ASTE SANTUKO TXOKOAK

Noiz: Apirilaren 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17  
Goizeko 9:00etatik 13:30ak arte.  
Adina: 2tik 8 urte bitarteko haurrak  
(2001-2006 bitartean jaioetakoak).

**Matrikula:** Apirilaren 2ra arte 943 37 14 48  
Ttakun K.E. Geltoki kalea 4, behe  
Amaraun ludoteka, Ola kalea 1, behe

[www.ttakun.com](http://www.ttakun.com)  
[aisia@ttakun.com](mailto:aisia@ttakun.com)



Lasarte-Oria Urtarrak 2008ko  
Bazterreko diruz laguntzako programa  
Programa subvencionatuak por la Comisión de  
Equipamiento del Ayuntamiento de Lasarte-Oria

## SUGATE Sukaldeak

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

**plan renove+%10 desk.**



Pintore kalea 5 • Tel./faxa: 943 361471 • LASARTE-ORIA  
[www.sugate.net](http://www.sugate.net)



Beti lehenengo egunean bezala

# eragin eta aldatu



Dani Maeztu      Aintzane Ezenarro      Mikel Basabe

[www.aralar.net](http://www.aralar.net)

bozkatu



ezkerreko **alternatiba** abertzalea      aralar